BIZITEGI ERAIKINA — ATEGORRIETA ETORBIDEA 5

D MAILA





Egilea eta data: Luis Elizalde; 1920.

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, erdisotoa, bastardea eta jatorrizko sei goi oin (azkena atzeraemana) dituena. Fatxada harlandua, estaldura zeramikoak dituena. Hormigoizko begiratoki eta galeria gainjarriak ertzetako alboetan. Konposizioan, apainduran, sekzioan, egiletzan eta datan antza Ategorrieta 3rekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: azken oin atzeraemana.
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.